



## I. ATALA

### BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA

#### Bizkaiko Foru Aldundia

#### Gizarte Ekintza Saila

**18095/2020 FORU AGINDUA, martxoaren 23koa, Gizarte Ekintzako foru diputatuarena, adinekoentzako egoitzetan eta beste zentro soziosanitario batzuetan garbiketa egiteko neurri osagarriak ezartzen dituena.**

Estatuaren Administrazio Orokorrak martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua onetsi du, zeinaren bidez hamabost egunerako alarma-egoera deklaritzen baita COVID-19ak sortutako krisi-sanitarioa kudeatzeko.

Ondoren, Osasun Ministerioaren martxoaren 19ko SND/265/2020 Aginduak (zeinaren bidez adinekoentzako egoitzei eta beste zentro soziosanitarioei buruzko neurri batzuk hartzen baitira COVID-19ak sortutako krisi sanitarioa dela eta), bere hirugarren apartatuan ezartzen ditu adinekoentzako egoitzetan eta beste zentro soziosanitario batzuetan garbiketa egiteko hartu beharreko gutxieneko neurriak.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2018 Legean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan eta Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitza-zentroei buruzko uztaillaren 30eko 126/2019 Dekretuan ezarritakoaren arabera, Sail honek eskumena du zentrozen funtzionamendu zuzenerako jarraibideak emateko eta erabiltzaileek zein langileen osasuna bermatzeko.

Hori dela eta, eta kontuan harturik zer ezartzen duen otsailaren 13ko 3/87 Foru Arauak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzkoak, hau

#### EBAZTEN DUT:

*Lehenengoa:* Desinfektatzaileak erabilia erabateko garbiketa egitea adinekoentzako egoitzetan eta zentro soziosanitarioetan, eremu hauetan arreta berezia jarrita:

- Isolamendu-sektoreetarako sarbidean/irteeran (besteak beste, ateak, eskailerak, igogailuak), COVID-19aren transmisioaren arriskua gutxitzeko.
- Ibiltari dabilzan pertsonak irits daitezkeen eremuetan.
- Profesionalek eta erabiltzaileek sarri erabiltzen dituzten beste kontaktu-eremu batzuk.
- Langileentzat bakarrik diren eremuetan (esaterako, aldagelak eta sarbideak), zuzeneko laguntzako profesionalentzat zein beste edozein eratako profesionalentzat direnetan (sukaldea, ikuztegia edo garbitegia).

*Bigarrena:* Osasun-agintaritzak gomendatutako desinfektatzaileak erabiliko dira garbiketa egiteko.

*Hirugarrena:* Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 102. artikuluan ezarritakoarekin bat, foru agindu honetan ezarritako betebeharrak borondatez edo nahitaez betetzen ez badira, Gizarte Ekintza Sailak bete ahal izango ditu modu subsidiarioan.

*Laugarrena:* Ezartzea Gizarte Ekintzako Foru Sailari astero jakinarazi behar zaizkiola bai hartutako neurriak, bai sortzen diren intzidentzia eta zailtasun guztiak. Egoitza-zentroan COVID-19a diagnostikatuta daukaten erabiltzaileak badaude, bi egunik behin egin beharko da jakinarazpena.

*Bosgarrena:* Adinekoentzako egoitza-zentroei eta zentro soziosanitarioei jakinaraztea foru agindu hau, agintzea zentrozen iragarki-taulan argitaratu dadila, eta bermatzea langile guztien ezagutzen dutela.

**AZKEN XEDAPENAK**

*Lehenengoa:* Ebazpen hau Bizkaiko Foru Aldundiaren Gardentasunaren Atarian eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, jende guztia jakitun izan dadin, eta adieraztea sinatzen den egunean jarriko dela indarrean.

*Bigarrena:* Ebazpen honek sinatzen den egunetik sortuko ditu ondorioak.

Bilbon, 2020ko martxoaren 23an.

Gizarte Ekintzako foru diputatua,  
SERGIO MURILLO CORZO